



Asteazkena
2009-05-06

VIIURTEA 1.694.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Arkitektura ikasleak erakusketaren aurkezpena egiten, atzo. E. EZEZA



Txikitatik hasi zen eskia praktikatzen aresoar gaztea. A. IMAZ

SAN ESTEBAN AUZORAKO HAINBAT PROPOSAMEN

TOLOSA EHUko hainbat arkitektura ikasleek etorkizunean auzoa nola izan daitekeen irudikatu dute; erakusketa ikusgai dago udaletxean 2

Eskiatzaile gazteen artean handiena

ARESO Adur Etxezarreta infantilen eskiatzaileen arteko saillkapeneko lehen postuan dago 7

BHARAT MARTIN BARRETERAPIAN ADITUA

«Ateratzen ikasi behar dugu barnealdean dugun zoriontasun potentziala»

TOLOSA Bihar 'Barre egiten ikastea, bizitzen ikastea da' solasaldia izango da Kultur Etxean 3

Santiagoko langileak mehatxatu dituztela salatu du ELAk

VILLABONA Ezker abertzaleak ez dela inongo mehatxurik egon esan du 4

Jon Goikoetxea mendizalea bi egunez bahitu dute

GAZTELU Gasteizko Josu Feijooekin batera egon zen Indonesiako matxinatuen esku 6

digitala
h
@

Asteartean, maiatzak 12, 10:30ean

NEREA SANCHO sexologoarekin
elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldekohitza.info webgunean



Etorkizuneko arkitektoek San Esteban nola izan daitekeen irudikatu dute

Azpiegiturak » EHUko ikasle batzuen lanak ikusgai dira udaletxean; etorkizuneko auzoa nola izan daitekeen agertu dute.

ERREDAKZIOA

San Esteban auzoa etorkizuneko nolakoa izango den tolosar askoren kezketako bat da. Hala, Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Fakultateko ikasleek hainbat proiektu gauzatu dituzte hemendik urte batzuetara, auzo hori nolakoa izan daitekeen irudikatuz. Proposamen hauek bildu dituzte Udaleko kideek eta ikusgai dira gaurtik aurrera, udaletxean bertan. Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 2a bitartean. Bisita ordutegia ondorengoak izango da: 08:00etatik 14:00etara, astelehene, ostiralera. Bestalde, Tolosako ikastetxeetako ikasle talde batzuekin bisita gidatuak ere egingo dira.

Erakusketaren aurkezpena izan ziren Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Fakultateko irakaslea den Javier Cenicacelaya eta proiektuen egileak diren hainbat ikasle. Hauek egindako lanei buruzko azalpenak eman zituzten, beraien lanildoak eta ardatzak agertuz.

Une honetan, San Estebango proiektua nork gauzatu duen erabakitzeke dago. Atzo eguerdian atera zuten plegua egitasmo hau lehiaketara ateratzeko. Hau irabazten duenak, Laskorain Goi-koako proiektua erredaktatu beharko du. Eta Jokin Bildarratz alkateak azaldu zuenez atzo, ikasle hauen proposamenak luzatuko dizkietegileei, kontuan har ditzaten.



Atzo arratsaldean aurkeztu zuten Udaletxean gaurtik aurrera ikusgai den erakusketa. ESTI EZEIZA



Arkitektureko ikasle talde ezberdinek egin dituzte proiektuak; kartoiarekin eta grapekin egin dituzte maketak. E. EZEIZA



Ekimenaren nondik norakoak

Goi Eskola Teknikoko bi irakasleek Tolosako San Esteban auzoaren etorkizuneko proiektuak egitea proposatu zieten beraien ikasleei. Hauen helburuetako bat zen, «lan arlo ahalik eta errealea izatea»

etorkizuneko arkitektu horiek. Horregatik, Tolosako auzoa izan zuten jopuntu, aukera asko eskaintzen baitzituen inguru honek. Proiektu honi *San Esteban amesten* jarri diote izena. Proiektuaren egileak euskaldunak badira ere,

Socrates programaren bitartez, atzerrian ikasten ari dira, eta herrialde nahiz hizkuntza ezberdinetan egin behar izan dute beraien lana.

Proiektuak eginak ziztuztenean, Tolosako Udal ordezkariak haiek

ikustera fakultatera joateko gonbidapena jaso zuten eta harriritua gelditu ziren Tolosako auzo bati buruzko horrenbeste proiektu eta ideia amestu zituztela ikusita.

Zintzilikatuta dauden proiektuak Tolosako auzo enblematikoren etorkizuneko proposamen ezberdinak dira, bertako eta atzerriko gazteen ikuspegiak eginak, abian den hirigintza iraunkorren isla. Ikasleek amestutako auzo aukera ezberdinak dira eta bozeto moduan jaso nahiz izan ditu Udalak, erakusketari ere bozeto itxura emanaz, proiektuak kartoiarekin eginiko egituretan antolatuz.

Ikasleek nahiz irakasleek azpimarratu zutenek, auzoguneari erabilpen ezberdinak eman nahi izan dizkiote, ahalik eta guñe gehienak sortuz. Bestalde, agertu zuten, proiektuak garatzeko garaian, hiri guztia aztertu zutela, eta honen arabera, bere izaeran sakonduz, auzoa berpiztuz.

Ereun gehienak berriak izanda ere, auzoan kokatuta dauden eraikin esanguratsuenak mantentzeko joera erakutsi dute denek, esaterako, Bonberenea eta Anbulategia. Bildarratzen hitzetan, «gure korporazioaren kezketako bat da San Estebanen etorkizuna, aurrera begira, etxebizitzegidagokionean egingo den proiektu handienerako bat baita». Izan ere, 1.069 bizitza berri aurreikusten dira». Ezaugarri hauekin lotuta, aipatu zuen, garrantzi handia duela beraien zatitza, hiriarren berezitasunak eta ezaugarriak kontuan hartzea. Hau da, beraien nahia zen, nortasuna zuen guñe bat erakitzea, eta ez beste edozein tokitan ere koka zitekeen auzo bat egitea.

Tolosako Udalak, eskerririk beroenak eman nahi izan zizkien atzoko agerraldian Euskal Herriko Unibertsitateari, eta bereziki Arkitektura Fakultateko irakasle eta ikasleei. Izan ere, egitasmo honekin, herriko txoko baten etorkizunaren ikuspegi desberdinez gozatzeko aukera eman nahi izan dute tolosarrei.

Gizaldek hainbat ikastaro antolatu ditu hilabete honetarako

Gizartea » Elkarte eta boluntarioei zuzenduta daude batik bat saio hauek; Interesa duenak, oraindik izena eman dezake.

ERREDAKZIOA

Gizalde, Gipuzkoako boluntarioen elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu hilabete honetarako. Izan ere, boluntariora eta antzeko gizarte-ekimenen inguruan zegoen sentsibilitatea eta interesa ikusirik, Euskadiko Kutxa, Hezkide Eskola eta Gipuzkoako Foru Aldundiak,

1998an Gizalde Gipuzkoako Boluntariora sortu zuten.

Elkarte zein boluntarioek, beren ekintza boluntarioa garatzeko edo gauzatzeko beharrezko informazioa, aholku, bitartekaritza eta baliabideak aurkituko dituzten guinea da hau.

Ikastaroetako batzuk hasita daude, baina beste batzuk oraindik ez. Esaterako gaurtik aurrera, komunikazioa eta gizarte trebetasunen inguruko saioak izango dira astean behin. Baita, diru laguntza iturri pribatuaren alternatibaren inguruko ikastaroa ere, ekainaren 10a bitartean. Bestalde, larunbat hone-

tan, Baketiken eskutik, Oinarrizko lau ikaskuntza zeurekin eta besteekin hobeto bizitzeko» izenpean jardunaldiak izango dira.

Hilaren 15 eta 16an berriz, *Azterketa eta eskuhartzerako tresnak, laguntza harremanean* ikastaroan parte hartzeko aukera izango da. Hilabete honetako azken saioak *Gizarte trebetasunak* izenburupean biltzen dira, eta 18, 19 eta 20an izango dira. Jarduera eta ikastaro hauen inguruko informazio gehiago nahi duenak www.gizalde.com webgunean en kontsulda dezake edo 943 42 80 13 telefono zenbakira deituta.

'Urbanasan bagara' udalekueetan izena emateko epea zabalik da

Aisia » Udalbideak antolatzen du ekimen hau 1996 eta 1999 urte bitartean jaiotako gaztetxoei zuzenduta.

ERREDAKZIOA

Udalbidek bere barruan dauden Udalen laguntzarekin, kasu honekin, Tolosarenarekin, Artelatzen ingurugiro enpresarekin eta Urbasa Bioitzarekin *Urbasa bagara* izeneko programa antolatu du.

Zazpi lurraldekoekin, zazpi egunez lelopean zazpi lurraldeetako 1996 eta 1999 urte bitartean jaiotako gaztetxoei zuzenduta dago ekimena. Gazte hauek jarduera aisialdi hezigarrietan parte hartu ahal izango dute.

Egitasmo honekin hainbat gauza bultzatu nahi dituzte Udalbidekoek, tartean, euskararen erabilera. Bestalde, ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa, eta honekin lotuta, natura maitatzen erakutsi nahi dute. Azkenik, euskal kultura ezagutzera ematea dute xede.

E Elkarrizketa

BHARAT MARTIN › Barreterapiari aditua

«Zoriontasun potentzial handia dugu barruan, eta ateratzen ikasi behar dugu»

Gizartea › Barreterapiari buruzko hitzaldia izango da bihar Tolosako Kultur Etxean; «norbera den bezala agertzen ikastea, bizitzen ikastea da», azaltzen du.



I.T.

INIGO TERRADILLOS

Barre egiten ikastea bizitzen ikastea da. Horixe erakutsiko dute bihar Bharat Martin eta David Martinek Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan hasita egingo duten solasaldian.

Nola laburbilduko zenuke bihar-ko hitzaldia?

Erabat praktikoa izango da, izan ere, barreari buruz aritu gaitzake hitz egiten, baina inoiz ez da nahikoa izango, probatu egin behar da. Errioxara joan, ardoei buruz hitz egin, eta ardo bera ez probatzea bezala da. Urte hauetan guztietan ikusi dugu barrearen bidez jendea norbera den bezala agertzen dela, bizitzen ikasten duela nolabait. Bizitzan gaude, baina gutxi bizi dira, ez baizik bertan. Iraganean edo etorkizunean kokaturik gaude maiz. Orainean bizi behar dugu.

Eta nola egiten da hori?

Norberak alaitasun edota zorion-

tasun potentzial handia du barrualdean, baina kanpoan bilatzeko joera dugu. Barrea tresna bezala erabilia barrualdera jo dezakegu, eta hori ikusi dugu, urteen poderioz, ehunka pertsonak nola aldatu duen bizitza. Izan ere, barreterapia bizitzeko modu bat dela esan daiteke. Kanpoan gertatzen dena

alde batera utzita, umore onekoa eta baikorra den jarrera izatea, egoeren eta beste pertsonen aurrean. Horixe da erakusketan dena.

Erraz lortzen al duzue jendeak hori ulertzea?

Ez da ez erraza ez eta zaila ere. Egia da jendeak hori lortzeko pilula nahi duela. Guk jokoan bidez era-

gin egiten dugu barrea, eta pixkanaka askatuz doa jendea. Horrela, errazago da, ulertzea norbere bizitza. Ez da zaila, baina landu egin behar da.

Nor gonbidatuko zenuke, bereziki, bihar-ko solasaldira?

Erakargarri egin behar zaizu, eta horregatik joan hitzaldira. Ni, esaterako, duela 18-19 urte animatu nintzen barreterapiarekin lanean hastera kartel batean ondorengo irakurri nuenean: «Barrea: zoriontasunaren leherketa». Horregatik, jendeari esango nioke barrez leheritu zen azken unea gogoratze-ko, eta ikusteko nola sentitu ziren. Ziurrenik, armonia batean, eta zoriontasun handi batean. Beraz, etor daitezela, ondo pasako baitute, barre egingo dute, eta zerbait gehiago ere bai.

Zer da «zerbait gehiago» hori?

Bilatzen ari garena gure baitan da goela konturatzea da.

Barre gutxi eginen duela jendeak ikusten al duzu?

Ba, pentsa, haurrek 300-400 aldiz egiten dute barre egunean, eta helduek, berriz, zortea badugu, 10-15 aldiz. Gehiago egin beharko genuke, aipatu ditugun onurez gain, fisikoki ere zientifikoki frogatuak dauden onura handiak eragiten baititu.

2-0 irabazi du Tolosak Trintxerperen aurkako partidari

Futbola › Hirugarren postuan daude, 55 punturekin; hurrengo partida Euskaldunaren aurka dute.

ERREDAKZIOA

Lurraldeko preferente mailan, Tolosak garaipen berri bat eskuratu zuen iragan larunbatean, Trintxerperen aurkako partidari, Bera-zubiko estadioan. Hain zuzen ere, 2-0 irabazi zuten urdinekin.

55 punturekin daude azken garaipenaren ostean, hirugarren postuan. Bi puntura Hernani dute bigarren postuan, eta 64 punturekin Aretxabaleta liderra. Mailaz igotzeko lehia erabat sartuta daude, beraz, baina ez du erraza izanok gertu baituzte behetik datozenak. Hurrengo partida 13. postuan kokaturiko Euskaldunaren aurka dute, larunbatean.

Laskorain areto futbol taldeak Astraburukoren aurka irabazi du

Areto futbola › 7-8 irabazi zuten; bigarren garaipena jarraian izan da horitxoztat; bigarren taldeak berdindu egin du.

ERREDAKZIOA

Bigarren astez jarraian igandean jokaturiko norgehiagokan beste aurrerapauso bat zenbatu zuen Laskorain areto futbol taldeak. Izan ere, Astraburuko taldearen aurka 7-8 irabazi zuten, «partidaren neketsu batean» beraz, hiru puntu batu ahal izan zituzten tolosarrek, saiklapenean gorantz eginez.

Alonso entrenatzailea ezin izan zen Astraburuko Udak kiroldegian bere mutilen alboan jardun zena, baina Saldias kapitainaren aginduek eta gainontzeko jokalariek guztien elkarretak azkenean garaipenera eramane zuten taldea.

0-1 ipini ziren aurretik ikastola-koak Telleriak kontraeraso bati

«bukaera aparta» eman ostean. Astraburuko arerioa ordea, «kalitatezko jokalaririk ugari horitxozko taldea da, defentsa lanetan ahula, baina eraso eta zehaztasun maila altuko lehiakidea, eta argi eta garbi frogatu zituen bere arma nagusiak kantxa gainean», azaltzen dute Laskoraingoek. Hala, horitxoz eginiko «bi nahaste-borrasteetan» markagailuari belatu eman zioten, 2-1 jarritz, lehenengo zatia amaietan. Bitartean tolosarrek makina bat aukera garbi barkatu zituzten eta modu horretan amaitu zen lehenengo zatia.

Tolosarren eraso

Bigarren erdian Gilek eta Murgik 2-3kora igo zuten markagailura. Baina, 3-3koa berehala iritsi zen. Une horretan, «beste behin mahai gainean kolpe bat eman» eta 3-8-raino joan ziren tolosarrek. Telleriak bat sartu zuen, eta Gil eta Ekhi bina gol egin zituzten. Maldan behera ipini zuten norgehia-

goka Astraburuko taldearentzat, eta ustez, erraza Laskoraingoentzat.

Baina ez zen horrela izan, eta azken 10 minutuetan, horitxoen tentsio jeitsiera nabarmenak eta bizkaitarren eraso gogorrek egoera aldatu zuten. 7-8-raino igo zuten markagailua etxekoek, beraz, estu ibili ziren azken unean, baina, horrela amaitu zen partida.

Beraz, garaita eta «pozik» irten ziren Astraburuko udal kiroldegitik Javi delegatua, Endika, Telletxea, Barriola, Gil, Murgi, Amatriain, Telleria, Ekhi, Saldias eta Domentxe jokalaririk.

Bigarren taldeak berdinketa

Gaztetxoek 4-4 berdindu zuten etxean, eta play off-a jokatuzko txartela eskuratzeko puntu bakarra nahikoa dute gelditzen zaie azken partidari. Pradosen neskek atsedenaldira zuten aste honetan eta Sancho-ren gazteek 1-6 irabazi zuten nagusitasunez.

Boluntarioentzat prestakuntza ikastaroak antolatu ditu Aldundiak

ERREDAKZIOA

Boluntarioentzat prestakuntza plana moldatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta Gizaldea Gipuzkoako boluntarioen elkarteak, boluntarioen elkarteekin eta irabazi asmorik gabeko elkarteekin elkarlanean. Guztira hamabost ikastaro emango dituzte maiatzetik urrira Gipuzkoako hainbat udalerritan, tartean, Tolosan. Ikastaroak doan izango dira.

Komunikazioa eta gizarte trebetasunak; Azterketa eta esku-hartzeko tresnak laguntza harremanean; Europako Boluntario Lanaren Zerbitzua; Oinarriko ikastaroa boluntario lanari buruz; Kulturaztasun heziketa eta boluntarioritza etorkin eta adingabeekin, eta elkarrekin kudeaketa eta finantzazioa dira gaietako batzuk. Tolosako, ekainaren 1 eta 2an izango da, bilera eraginkorrei buruz.

Informazio gehiago www.gizartepolitika.com-en ikusi daiteke.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Kalebeherako frontoiaren zoru jarriko dute moduloa: hau hesituta joango da eta horma libre xamar utziko dute pilotan jolasten jarraitu ahal izateko. N. URBIZU

Haur eskola zerbitzua datorren ikasturterako martxan jarriko dute

Alegia » Irailean edo urrian hasiko dira txikitxoek, Kalebeherako parkean behin behineko zerbitzu jarriko dituzten moduloetan.

NEREA URBIZU

Joan den astean Alegiako Udalak herrian haur eskolaren zerbitzua martxan jartzeko bilera informatiboa antolatu zuen. Bada, datorren ikasturtean, zerbitzu berri hau izango du Alegia: ikasturte osoa Kalebeherako frontoiaren ondoan egingo dute 0 eta 2 urte bitarteko txikitxoek.

Aurtengo ikasturtean etxe prefabrikatuetan egingo lukete. Modulo hauek, noski, oso ondo egituratuta daude, ederki egokituta haur eskola bezala funtzionatzeko. Ale-

giako Udala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da dagoeneko eta eurek zehazten dute eraikin berezi hauen egitura. Zaldibian adibidez, moduloak dituzte ere, eta Ikaztegiatan, Lehen Hezkuntzako ikasle batzuk ere modulotan daude, eskolaren ondo-ondoan.

Aurreko legealdiko proiektuen artean zegoen haur eskolarena, baina kokapenarekin arazoak izan zituzten orduan. Udalaren aldetik zerbitzua ematen hasteari eman dio garrantzia, «premiazkoa zen guretzat martxan jartzea».

«Printzipioz herriko adin tarte horretan dauden haur guztiak hartzeko adinekora izango litzateke haur eskola». Beraz, maiatzean eskatzen duenak zerbitzu hori izango luke.

Izena emateko epea zabalik

Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, hilaren erdialdera arte. Udaletxean eman behar da izena eta bertan ere informazio gehiago jaso daiteke. Hilabete honen baitan izena emango dutenek datorren iraila-urrian hasteko aukera izango lukete.

Noski, irizpide batzuk daude kontuan hartzeko. Esaterako, ezin da jaiotze gabe dauden haurren izena eman haur eskolan, eta hasi ahal izateko gutxienez 16 aste izan beharko ditu haurrak.

Behin betikoa zehaztu gabe

Kalebeherako parkean, beraz, jarriko dituzte behin behineko etxetxo hauek, ikasturte hau egiteko, alegia. Bestela, lekua beste bat izango da: «Aukera desberdinak daude, baina lekurik egokiena

dintzen ingurukoak. Bestetik, egingo den eraikina beraren ingurukoak. Arestian esan bezala, modulo hauek erabiltzearena ez da berria, beste herri batzuetan ere erabili izan baitira eta oso egokituta daude. «Gure teknika eta Jaurlaritzako harremanetan daude jadanik eta lantzen ari dira».

Udalaren aldetik, esan oraindik Haur eskolen Partzuergoan ez dagoela sartuta eta prozesua martxan jarri dute.

Haur eskola Udalak martxan jarritako zerbitzua izango da, baina gurasoek eskatutako zerbitu ere izan da. «Alegia beti izan da inguruko herri txikitentzat ere zerbitzu aldetik gunea, baina inguruko herrietan haur eskolena garatzen joan dira eta Alegian, adibidez ez. Nolabaiteko gabezia zen. Orain arte lursailakin arazoak izan dira baina orain aurrera egin dezakegu hasieratik genuen puntu honekin».

Guraso askok orain arte ondoko herrietako haur eskolara eraman izan dituzte haurrak. Haurak dira Tolosaldean eta Leitzaldean haur eskola duten herriak: Albiztur, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrail, Leiza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil. Guztira, hogeit...

eraikina Kultur Etxearen inguruan egitea dela iruditzen zaigu. Harri txintxarra bezala daukan lekuan, kiroldegiaren ondoan, beraz». Seguruenik bi solairu izango lituzke eta eskolarekin bide baten bidez dago komunikatuta. Baina dena dela, «erabat definitzeko dago hau, ez da guztiz segurua».

Bilerara joan zen jendearen kezkan nagusiak bi izan ziren: alde batetik, modulo hauen egoera edo bal-

Zuzenketa. Atzoko HITZAKO alean, 5. orrialdean Ugaitz Renobalesen albistearen Renobalesek GRAVN Txapelketa Koldo Galarragarekin 22-20 irabazi zuela jartzen du, baina ez zen Koldo Galarragarekin izan, Eneko Galarragarekin baizik. Bestalde, Gallurralde-Jaka pilotariak ere txapel-dunak izan ziren, baina ez GRAVN Txapelketan; Matiena txapelketan izan zen.

Laburrak

Udalak Osakidetzaren aurkako mozioa onartu du

BALIARRAIN • Baliarraingo Udalak ere UEMAK aurkeztutako Osakidetzaren aurkako mozioa onartu du. Beraz, Tolosaldeko 11 herri dira mozioa onartu dutenak. Hauek dira herriak: Alegia, Elduain, Aduana, Anoeta, Orexa, Altxo, Irura, Gaztelu, Amezketa eta Ikaztegieta. Mozioa jendaurrean irakurriko dute Villabonako ambulatioiaren aurrean, bihar, 19:00etan, ambulatioetan zerbitzua euskaraz eskatuko.

'Garai bateko Alegia'-n parte hartzeko aukera

ALEGIA • Garai bateko Alegia festa antolatzen ari da Kultur Batzordea ekainaren 7rako. Garai batean herri nola bizi ziren gogoratzea da helburu nagusia, dena festa giroan. Herritarren festa izango da. «Antezpen honetan parte hartu nahi dutenei deia egin nahi diegu anima daitezten». Beraz, parte hartu nahi dutenak oraindik garaiak da-biltza. Dena dela, informazio gehiago jasotzeko Kultur Etxera jo dezakete.

Juani Alkortaren paisaiak ikusgai, Jubilatuenengan

ALEGIA • Maiatza osoan zehar Alegiako jubilatuen tabernan Juani Alkortaren margolanak izango dira ikusgai. Beste noizbait ere jarri ditu bertan bere lanak, baina oraingoan aukeratu dituen lanen artean, batzuk aurtengoak dira. Gehienetan paisaiak ikus daitezke, eta askorentzako ezagunak: Gaztelugatxe, Haizearen orrazia, Aralar... Afrikako emakume langile batzuen siluetak ere badira. Orokorrean, oso kolore atseginak erabili ditu.

Ateak zabalik jardunaldia

Prestakuntza-Ziklo berriak, zator informatzera!!!

cebanc-era, Berio Pasealekua 50 (Unibertsitatearen ondoan), kurribatzen maiatzak 9 eta 23 11:00etan eta ostegunetan maiatzak 14 eta 28 19:00etan

ETORTZEA EGOKITZTU nomen: berio@beriocebanc.com

BEZTU zure izena, abizena eta telefonoa. TELEFONAZ MOZIOAUKA ADIBETIKO JAKINA. IRABAZI AHAL IZANGO DUZU

Ostalaritza eta Turismoa

Administrazioa

Informatika

Marketinga eta Marketinga

Dietetika

■ Informazio-ordainak bertako ikasleek legoratu
■ Zentzuen ikusgai gisara
■ Irakurlearen akzioa arreta personalizatua
■ Gue Marka Oribatza Eskolako ikasleak
■ Prestakuntza prozesuak deialdian jarriko

Barrio Caspallakua, 50 - 48016 Oribatza - San Sebastián - Tfno: 943 31 69 00

www.cebanc.com

Jon Goikoetxea 'Boli' mendizalea bi egunez bahitu dute Indonesian

Gaztelu » Mendizalea Gasteizko Josu Feijooekin egon zen matxinatuen esku; hilaren 11n bueltatuko da etxera.



Jon Goikoetxea 'Boli' 2004an Everesteko gailurrean. HITZA

ERREDAKZIOA

Jon Goikoetxea *Boli* mendizale gaztelutarra eta Jon Feijoo gasteiztarra Indonesiako Irian Jaya irlako Carstensz Piramideko (4.884 metro) gailurrera iritsi ziren pasa den apirilaren 30ean. Jaisterakoan eurekin batera zihozan bi mendizale ondoezik sentitu ziren eta Freeport urre minara daraman debekatutako bidera jaitsi ziren, bertara lagutzeko helikoptero bat sartzeko baimena eskatzera. Ezezkoa jaso zuten eta matxinatuen talde batek bahitu egin zituen.

Matxinatuek bi egunez izan zituzten bertan, ustez fusilak zituzten bi gizonen zaintzapean.

Bi egunak pasa ostean John C. Rudolf kideari esker lortu zuten

askatzea, izan ere honek AEBetako Kanpo-Arazoetako Sailera deitu eta Washington eta Lusianako (AEB) bi senatariei esker lortu zuten matxinatuek aske uztea.

Balin daude orain

Une honetan bi mendizaleak Indonesian jarraitzen dute, Balin, hain justu. Gazteluko gaztea hilaren 11n bueltatuko da etxera; Feijoo, berriz, datozen egunotan bu-

latuko da. «Lasai gaude orain», adierazi diete mendizaleek euren senideei. Era berean, Feijoo bi egunetan gertuen izandako gauza bakarra «urrezko 25 pipita» izan zirela esan du eta baita «txakurrak baino okerrago» egon direla ere.

Bi mendizaleak 7 tontor, 7 kontinente proiektua egiten ari ziren, helburua bost kontinenteetako zazpi gailurrik altuenak igotzea delarik.

Herriko barne-mugikortasuna hobetzeko plana

Ibarra » Udalak Ibarra inguruko herrietako aparkaleku bilakatu ez dadin neurriak hartuko dituela esan du.

Baina ohitura hau zabalduko balitz, gertalitekeena da Ibarra bertako bizilagunek aparkalekurik ez topatzea edota plaza bat aurkitzeko denbora asko galtzea.

Doako TAO sistema

Udal-arduradunen hitzetan, «ohitura hau ez da bidezkoa Ibarra bizilaguntzat» eta horregatik aztertuko dute arazoa konpontzeko neurriak hartzea.

Irtenbideetako bat, «hastapen fasean bada ere, doako TAO sistema piztea da, aparkalekuei dagokionez mugikortasun handiagoa egoteko eta ibilgailu aparkatzea pertsona guztientzat errazagoa izan dadin». Dena den, ekintza mota hau Udala jada lantzen ari den «mugikortasun plan baten zati» izango da. Plan horren helburua mugikortasunaren alorrean dau den gabezia nagusiak aztertu eta horiei irtenbidea emateko aukerak proposatzea izango da», azaldu dute Udaleko arduradunek.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udal herriko kaleak inguruan aurkitzen diren eta aparkatzeko toki falta duten beste herrietako ibilgailuen aparkaleku bihurtzeko daitezkeen neurriak hartzea aztertzen ari da. Helburua arazo honetaz gain, Ibarra barne-mugikortasuna hobetuko duten beste ekintzak ere jasoko dituen plan bat garatzea da.

Ibarra Udal alboko udalerrietako bizilagunek Ibarra aparkaleku eta gero, oinez, beste zona batzuetara joateko ohitura dutela ohartu da. «Jarrera honen arrazoiak, Ibarra aparkaleku bat topatzea beste toki batzuetan baino errazagoa dela da», dio Udalak.

Alurr Herri Urratsen izango da

Ibarra » Araba gunean eskainiko dute emanaldia 12:00etatik aurrera; gutzira 30 dantzari gerturatuko dira ingandean Senperera.



Iaz ere jende asko bildu zen Dantzari Txiki Egunean. HITZA

ERREDAKZIOA

Ibarra Alurr Dantza Taldearen hurrengo emanaldia igande honetan, hilak 10, izango da Senperen (Lapurdi), Herri Urrats jaian. 12:00etan eta Araba gunean ariko da dantza taldea.

Gutzira, 30 dantzari joango dira Senperera eta dantza eta koreografia hauek egingo dituzte: Agurra, Uzta, Xuletino, Banako, Irangan erroitik, Kaxarranka, Fandangoa, Arin-arina, Paloteados, Bok spok eta Makil jokoak. Aipatu 30 dantzariak bi taldekoak dira:

gazteak eta beterranoak. Saioaren aurretik, mutil taldeak ere dantzatuko du. Alurr Dantza Taldeak «Herri Urratsen parte hartzea oso garrantzitsua da guretzat», esan du. Izan ere, «gure kultura eta eus-

kara zaintzea garrantzitsua iruditzen zaigu, gure herriko identitatea mantendu ahal izateko. Hainbeste jende biltzen duen festa honetan dantzatzeko aukera izateak izugarritzko ilusioa egiten digu», gaineratu du.

III. Dantzari Txiki Eguna

Bestalde, hilaren 23an III. Dantzari Txiki eta Alurr Eguna ospatuko dute Ibarra. Goizean, dantzari txikiak ariko dira eta arratsaldean Alurr Dantza Eskolako emanaldia izango da, non 200 dantzari inguruk hartuko duten parte. Edu Muruamendiarek erakutsitako koreografiak eta gazteek beraiek prestatutakoak eskainiko dituzte.

Erromeria ere izango da eta Alurr taldearekin azken urteotan lan egin duten musikarietako batuk; joko dute, gainera.

Jolasetan «inor ez dutela baztertuko» diote eskolako ikasleek

Berastegi » Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan Ekitate Gabezia landu dute ikasleek ikasturte honetan.

Proposamenak

Landutako ikusita haurrek proposamen hauek egin dituzte: datorren urtean egingo den bigarren eskuko azoka antolatzen laguntzea, hau da, lokala bilatu eta herri-tarrak informatzea; bidezko merkataritza bultzatzeko Udalak egin behar dituen erostetarako gitegakoan produktu hauen kontsumoa bultzatzea eta erostea ahal denean; aurrekontuen zatitxo bat elkartasun helburuetara bideratzea; eta Udalak herri-tarrak kontratatzen dituen emakume eta gizonen kopuru berdinaratzea.

Konpromisoak

Konpromisoei dagokionez gazte berastegitarrek euren jolasetan inor ez dutela baztertuko esan dute. Era berean, jolas-garaiaren antolaketa eta kudeaketan hartuko duela parte ere agindu dute. «Zein gune eta zein jolas tokatzen zaigun jakiteko koadro bat egingo dugu eta errespetatzen ahalegintuko gara», esan dute. Ingurumen Batzordean parte hartzen jarraituko dutela ere argitu dute eta datorren urteko bigarren eskuko azoka ere antolatuko dute. Bukatzeko lortzen duten dirua elkartasun helburu batekin erabiliko dute eta baita etorkintzat harrerako protokolo bat idatzi ere.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko hainbat herrietako ikasle zein irakasleek urtero egin ohi duten bezala Eskolako Agenda 21eko proiektua landu dute ikasturte honetan. Aurtengo gaia Ekitate Gabezia izan da eta hil honetan zehar herri desberdinetako udaletxeetan ikasleek egindako proposamenen eta hartutako konpromisoen berri emango dute. Atzokoan izan zen lehen udalbatza eta Berastegiko ikasleentzako txandak izan zen.

Horiek horrela, Haur Hezkuntzakoek umeen eskubideen irakurketa egin dute; Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek arratsalde bat ahali eta diru gutxien gaztadiaz ondo pasatzeko saiakera egin zuten, hartara, dirua denbora librean hain ezinbestekoa ez dela jabetzeko; L.H. 3. eta 4. mailakoek immigrazioa animalietan, gizakietan eta gizartearen oso ohiko jarduerak dela ikasi dute; eta L.H. 5. eta 6. mailakoek bidezko merkataritza zer den ezagutu dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aresotik gurasoekin eta anai gaztearekin elurraren bila irteten da ahal duen guztietan Adur Etxezarreta Rezola gaztea. Ez da alperrik 2009ko eskiazaileen sailkapenean, infantiletan, lehena.

Aresoko eskiazailea

ASIER IMAZ

Adur Etxezarreta Rezolak 13 urte ditu eta abiadura handiko eskia gustatzen zaio. Espainiako Txapelketan hirugarren postua lortu du eta urteko eskiazaileen sailkapenean, infantil lehen mailan, lehen postuan aurkitzen da.

Elurraren atzetik

Areson jaio zen Etxezarreta 1996. urtean. Eskiaren mundua gurasoen bitartez ezagutu zuen eta ongi gogoratzen du nola izan zen dena: «Gurasoekin hasi nintzen eskiaztzen. Asteburuetan elurretara joan ginen eta batzuetan txapelketak ikusten genituen. Gurasoei nik ere parte hartu nahi nuela esaten omen nien. Ondoren Nafarroako Eski Klubean izena eman eta 10 urterekin lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Elurra eta abiadura asko gustatzen zaizkit».

Areso sarreran ingurune lasai batean bizi da Adur; ama, aita eta Beñat anai gaztearekin. Etxearen ondoan aldaparik ez zaio falta eskiazaile gazteari, hori bai, zuritasun puntu bakarra larrean ari diren ardiek jartzen dute. Hala eta guztiz ere, etxe atariko maldan eskiazaile senaren isladak nabariak dira: «Eski hauek txikitakoak dira eta hemen ibiltzen gara jolasean, belarretan behera. Nirekin lehiaketan ibiltzen diren batzuk eski estazio inguruetan bizi dira eta egunero entrenatzeko aukera dute. Gero atzerrian, beste batzuk teknifikazio zentroetan egoten dira txikitatik, zaila da hauen maila edukitzea asteburuetan entrenatuz».

Gazte txoa izanagatik argi du asko gustatuko litzaiokeela egunero entrenatu ahal izatea. Hala eta guztiz ere, txapelketetan hasi zenean, berezko dohaina duela erakutsi du Adurrek: «Alebinetan hasi

nintzen txapelketetan eta postu nahiko onak lortu nituen: bederatzigarren etabar. Aurten denboraldi ona egin dut».

Txapelketa barnetik

Espainiako Txapelketan, infantil 1. mailan, hirugarren postua lortu zuen Sierra Nevada Adur Etxezarreta Rezolak apirilean. Finala baino lehen izerdia gogotik bota behar izan zuen aresoarrak: «Txapelketa hiru fasetan jokatzeko da. Lehen eta bigarren kanporaketak Candanchun eta Alto Campoon izan ziren. Bi fase hauetan lehen 60 onenek finala Sierra Nevada jokatu zuten. Hiru egunetan hiru proba edo modalitate egin genituen: Super Gigantean lehen postua lortu nuen Sierra Nevada, baina orokorrean bigarren gelditu nintzen, Gigantean hirugarren eta Slalomean laugarren. Sailkapen orokorra lortzeko hiru probak hartzen dira kontutan. Hor hirugarren gelditu nintzen».

Fondoko eskia probatu baldin badu ere, Adur Etxezarretarena maldan beheako abiadura da: «Txapelketako probaren aurretik ibilbidea ikuskatu eta memorizatu egiten dugu. Irteeran urduri egoten naiz. Huts egite txikiren bat egiten baldin baduzu erortzeko arriskua daukazu, denboragalduz. Edo ibilbidean zehar aterean bat patzatzeko baldin baduzu deskalifikatuta gelditzen zara. Behin proban zaudenean ezertan pentsako aukerarik ez duzu izaten».

Pilotan eta futbolekin ibiltzen diren lagunak zer esaten dioten galdetuta, «Zer esango didate ba? Oso ondo» erantzuten du. Eskia naturaltasunez bizi du Adurrek, izan ere, «lagun berriak eta harremanak egiteko» aukera eskaini eta eskaintzen baitio elurretako kirol honek.



Adur Etxezarreta podiumean, hirugarren postuan, eta Beñat anai gaztearekin etxe atarian. NAFARROAKO ESKI KLUBA/A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 032. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Irura.** Herriaren egingo diren kultur astea, aste berdea, eta abarren antolaketan parte hartzeko bilera, udaletxeko batzardi aretoan, 19:00etan. Guztiei irekita.
- **Tolosa.** Maiatzaren 16an Arza-balza paperfabrikan lan egin zuten emakumeek bazkaria egin behar dute Alegiako Txintxarri jatetxean. Izen-ematea, 943 65072 lan.
- **Tolosa.** Ereite elkarteak ipuin tailerra antolatu du bere egoitzan (San Esteban, 20) asteazkenetan 18:00etan hiru hilabetez (15 euro). Izen-ematea, 685 750561 telefono zenbakian edo multiculturalereite@yahoo.es helbidean.
- **Tolosa.** Amartzeko jubilatuek Arnedora irteera antolatu dute hilaren 26rako. Izen-ematea, jubilatuen egoitzan ostegun eta ostiralean 17:00etatik 20:00etara (12 euro). Informazioa 653 747192 telefono zenbakian.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Ligi - Santa Engrazi mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak antolatu du hilaren 10erako, Izarbe mendia igoz. Izen-ematea, elkartearen 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com.

Kirolak

- **Tolosa.** Maiatzaren 9an, 17:00tan, Javier Urkolaren omezezko VIII. Herri Duatloia antolatuko da. Izen ematea, Shanti Kiro-lak-en eta informazioa tolosaldekott@gmail.com helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzetuzoa, 9. 943 675118.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Aurreiritziak baztertzekeo hitzaldia

IBARRA ■ SOS Arrazakeriako Anna Stern izan zen atzo Ibarrako Uzturpe Ikastolan bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari buruzko hitzaldia eskaintzeko. Aurreiritzi eta uste oker askori aurre egiteko datuak eskaini zituen eta legeak ere gaia ez duela behar bezala jorratzen esan

zuen, besteak beste. Gipuzkoara batez ere gazte marokoarrak, saharaz azpikoak eta aljeriarrak etortzen direla eta 15 eta 17 urte bitartekoak izaten direla esan zuen. «Gehienbat mutilak izaten dira eta bi izaten dira arrazoi nagusiak: txirotasuna eta gizarte mailaz igotzeko nahia». R. CALVO

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu
AKABA BERA BERA
Elche-Mustang

Maiatzak 9 • **Larunbata** • 19:00etan
Donostiako Bidebieta Kiroldegian

HITZAK harpidedunentzat
sarrera pare du
ATE JOKA
antzezilana

Maiatzak 9 • **Larunbata** • 20:30ean
Tolosako Leidorren



sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu goizez: **943-65 56 95** telefono zenbakira harpidedun kidea eskura duzula